

FILMAZPIT

KATALOGOA

Eguneratua: EKAINA 2016



NOBEDADEAK



URRIA AZKEN
HILABETEA


FALTA DEN IRUDIA (L'Image manquante). Rithy Panh



Rithy Panh kanbodiarrak zuzendariak Khmer Gorriak Phnom Penh-en sartu aurreko eta ondorengo bere familiarren historia kontatzen du filma honetan. Pol Pot-en erregimen komunistak 1975eko apirilaren 17an hartu zuen Kanbodiako kapitala, Pahnek 11 urte zituela. Hiritarrek lan esparruetara bidali zituzten eta klaseen arteko banaketa desagerrarazteko asmoarekin, objektu pertsonal guztiak konfiskatu zituzten eta pertsonak zenbaki bilakatu ziren. Tortura eta exekuzioak ohiko kontua bilakatu ziren arau-hauste txikienaren ondorioz. Irudimen jausi kementsu bat eginez, historia narrazioaren gainean jarrita dauden buztinez eginiko irudiak erabiliz antzeztua dago.

FRANTZIA / KANBODIA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: FRANTSESA - IRAUPENA: 90'
FILM DOKUMENTALA. 12 urtetik gorakoentzat

PAPUSZA. Joanna Kos-Krauze & Krzysztof Krauze



Polonian bere lana argitaratu zuen aurreneko olerkari ijitoa izan zen Bronisława Wajs edo Papusza. Neskatoa zenean ezkonarazi zuten borondatez kontra, nazien izugarrikerietatik ihesi aurrena eta ondoren poloniar estatu komunistaren doktrinamendutik, Papuszaren bizitzan, herri ijitoaren ohiturak eta historia ibiltaria laburbiltzen dira XX. mendeko Europaren Erdialdeko historia gatazkatsuen agertoki handian. Jerzy Ficowski poeta izan zen Papuszak literaturarako zuen gaitasuna aurkitu eta bere testuak editatu zituen, baina, harekin izan zuen harremanak ekarri zion paradoxikoki zorigaitza: bere lan poetikoagatik ezaguna izan arren, ijito komunitateak gaitzetsi egin zuen herriaren sekretuak azalera zea leporatuta; Papusza pobrezian eta pairamenean bizi izan zen erduntasunak janda, 1987an hil zen arte.

POLONIA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: POLONIERA & ERROMANIERA - IRAUPENA: 131'
FILM BIOGRAFIKOA. 12 urtetik gorakoentzat


ORAINIK HEMEN GAUDE (We Are Still Here). Ted Geoghegan



Mamua(k) eta Gaizkia inguruan –kanpoan ere bai– zeuzkan etxe sorginduko film heldu, logiko, sendo eta gogor honen protagonista, Barbara Crampton, **Re-Animatore**n (1985) neska-laguna izan zen. Jakina, 1985 inguruan Megan Halsey izan zen. Baina beldurrezko film alemanak formateatzen dituzten taldeen lagun eta laguntzaile den komikien gidolari-kide batek egindako film honen ustekabe nagusia honako hau da: Barbara eta bere senarra laguntzera heltzen den medium-a Lisa Marie dela! Halaxe da, Tim... Burton-ek maitemintzeko akatsa egin zuen Mapplethorpe eta Weber-eko modelo handia. Era berean, harrigarria ere bada Monte Markham-en lan paregabea, 1995eko **Piranha** filmean aktore gisa ezagutu genuen ezinezko dokumentalen filmatzaile bikaina.


AEB 2014 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 84'
BELDURREZKO FILMA. 18 urtetik gorakoentzat

NOLA? Fermin Muguruza



Bere xarmak erakarrita, Fermin Muguruza The Big Easy-ra joan da disko bat grabatzera: Irun Meets New Orleans. Bertan, alde batetik, bere ibilbideko zortzi abesti moldatu ditu New Orleanseko doinuetara eta hiriko bi klasiko interpretatu ditu, eta bestetik, Nola? dokumentala zuzendu du (hango egoeraz, Katrinen 10. urteurrenean). Treme-ko pasarte batekin paralelotasun ugari ditu: abestiak oso ondo integratuta daude, protagonistek kontatzen dutenarekin lotuta. Hala, musika narrazioaren pertsonaia bat gehiago bihurtzen da. Pelikularen ardatz nagusia George Ingmire da (WWOZko esataria, dokumentalista eta urakanak izan zuen eraginaren inguruko hainbat irratsaioren aurkezlea). Bere diskurtso kritiko eta ironikoarekin, diskoaren grabazioaren kontakizuna, gauzen egoeraren inguruko gogoetekin tartekatzen du.


EUSKAL HERRIA 2015 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 65'
FILM DOKUMENTALA.



ITZALETAN EGITEN DUGUNA (What We Do in The Shadows). Jemaine Clement & Taika Waititi

Viagok 379 urte ditu. Vladislavek, 862. Deaconek, 183 besterik ez. Baina Petyr, Petyr da nagusi: 8.000 urte! Lauak pisu batean bizi dira Wellingtonen, Zeelanda Berrian. eta dokumental faltsu honen protagonistak dira. Filma etxe bateko eguneroko errutinak ekar ditzakeen arazoei buruz mintzo da, batez ere odol-xurgatzailea bazara eta azkarrenen, aberatsenen edo ondoen jantzitakoen artean ez bazaude. Gizagaixo batzuk besterik ez dira eta argi eta garbi erakusten dute zergatik beste izaki ikaragarri batzuk (zonbiak eta otsogizonak) gailentzen zaizkien pantailan eta ziberespazioan. Filma Sundancen estreinatu zen.


ZEELANDA BERRIA 2014 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 86'
BELDURREZKO KOMEDIA. 15 urtetik gorakoentzat



ZULATU, LAGUN, ZULATU! (Drill Baby Drill). Lech Kowalski

Egun batean, Ukrainiako mugatik hurbil dagoen Polonia ekialdeko herri txiki bateko biztanleek jakiten dute Chevron-ek –munduko laugarren energia- konpainia garrantzitsua– bertan putzu bat eraiki nahi duela arbel-gasa erauzteko. Hasieran ez diote kasu handirik egiten, baina pixka bat ikertu ondoren jakiten dute putzua euren abeletxeetatik hurbil edukitzea arriskutsua izan daitekeela eta mobilizatzen hasten dira. Politikariengana eta gobernu-erakundeetara jotzen dute, baina ez dute erantzunik jasotzen. Chevronen makinak bertara iritsi direla ikusten dutenean, baserriarren matxinada hasten da. Jatorri poloniarreko Lech Kowalski dokumentalista estatubatuarra bertan dago eta han gertatutakoa dokumental honetan kontatzen du.

FRANTZIA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: POLONIERA & INGELESA - IRAUPENA: 84'
GASAREN BORROKAZ DIHARDUEN FILM DOKUMENTALA



NESKA BANDA (Girlhood). Céline Sciamma

Marieme familia-inguruneak, kale itsu batera daraman eskola-ibilbideak eta auzoko mutilen legeak zapalduta bizi da, baina hiru neska askatasunzale ezagutzean, bizimodu berri bat hasiko du. Izena eta janzkera aldatu eta ikastetxea utziko du bandan onar dezaten, askatasunerako bidea izango den itxaropenarekin.

FRANTZIA 2014 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: FRANTSESA - IRAUPENA: 112'
PARISKO AUZO POBREETAN GAZTEA, EMAKUMEA ETA BELTZA IZATEAREN PATUA. 15 urtetik gorakoentzat



EZTIA (Miele). Valeria Golino

Irenek 32 urte ditu eta bakarrik bizi da. Denbora luzea darama sufritzen ari diren pertsoneri laguntzen, hau da, euren agoniarekin amaitu nahi duten gaixo terminalei eta etengabeko sufrimenduari bizi diren eta hiltzeko laguntza eskatzen duten pertsoneri. Miel ezizena erabiltzen du. Inolako gaixotasunik ez duen baina hil nahi duen gizona ezagutuko du egun batean; dagoeneko nahikoa bizi izan dela eta nekatuta eta aspertuta dagoela esan dio. Gizonarekin izandako solasaldiek bere lanaren eta bizitzaren oinarriko zenbait printzipioen inguruko gogoeta egitera bultzatuko dute Irene.

ITALIA / FRANTZIA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ITALIERA - IRAUPENA: 98'
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA JORRATZEN DUEN FILMA



DIFRET. Zeresenay Berhane Mehari

Addis Abeban, Meaza Ashenafi abokatuak legelari baten babesa behar duten emakumeei eta hurrei laguntzeko sare bat sortu du. Poliziaren eta Gobernuaren etengabeko xaxatzeari aurre egin beharko dio. Hala ere, Hirut 14 urteko neskatoa defendatzera ausartuko da. Hirut, ikastetxetik itzultzen ari zela, bahitu eta bortxatu egin zuten, baina berak bahitzaile bat hil eta ihes egitea lortu zuen. Bere buruaren defentsan egin zuen arren, heriotza-zigorra jasotzeko arriskuan dago Hirut.

ETIOPIA 2014 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: AMHARERA - IRAUPENA: 99'
GIZA ESKUBIDEAK URRATZEN DITUZTEN TRADIZIOEZ DIHARDUEN FILMA.
12 urtetik gorakoentzat



CORIA ETA ITSASOA (Coría y el Mar). Diana Nava

Hau emakume borrokalari, saiatu, sentikor, nostalgiko, itxaropentsu, ausart eta parte-hartzaile batzuen istorioa da. Emakume hauek gai izan ziren ezerezean, paisaia babesgabeenean, bizitza eraikitzeko. Emakume sahararrak dira. Duela 39 urte, erbesteratu zituztenean, gizonak gerrara joan ziren eta emakumeek "hiri iragankorrek" altxatu zituzten: errefuxiatuen kanpamenduak. Euren familiak, bertako administrazioa eta etxeak antolatuta zituzten, eta egunerokotasun berri bat asmatu zuten itxaronaldia eta nola amaituko den ez dakigun borroka baketsu bat ahalik eta modu atseginean burutzeko. Emakume horiek filmeko protagonisten amonak dira. Protagonista diren belaunaldi berriek jada ezin izan dute ezagutu euren herriko itsasoa.

EUSKAL HERRIA 2014 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: HASSANIYYA, ARABIERA, GAZTELANIA - IRAUPENA: 82'
EMAKUME SAHARARRAK: EUREN LEKUA BERRESKURATZEN, FILM DOKUMENTALA



ZINEGOAK 2015 FILM LABURREAN BILDUMA

- *DOCE DE GOIABADA. Fernanda Rocha
- *EN EFTERMIDDAG. Søren Green
- *HOLE. Martin Edralin
- *MISS FINKNAGLE SUCCUMBS TO CHAOS. Amy Harrison
- *PEPPER. Marc Cleary
- *TOMORROW. Leandro Tadashi

BRASIL / DANIMARKA / KANADA / AEB. - JATORRIZKO HIZKUNTZA: PORTUGESA, DANIERA, INGELESA -
IRAUPENA: 77' (guztira)
HOMOSEXUALITATEA ARDATZ DUTEN FILM LABUR HAUEN PROTAGONISTAK ADIN
EZBERDINETAKO PERTSONAK DIRA.



OMAR. Hany Abu-Assad

Omar gazte palestinarra da eta balak saihestera ohitu da Nadiari, bere maitasun sekretuari, bisita egin eta horma gurutzatzen duen bakoitzean. Egunez okin lanak egiten ditu; gauez, berriz, Israelen okupazioaren kontra borrokatzeko prestatzen da bere haurtzaroko lagunekin, Nadiaren anaia Tarekekin eta Amjadekin. Ordea, bere bizitza betirako aldatuko da egun batean. Jada ezer ez da berdina izango ez bera ez eta Nadiarentzat. Indarkeria, traizio eta gorrotoak ekarritako zurrunbilo batek harrapatuko du. Bere printzipioei leialki jarraitzen saiatuko da, bere bizitzaren eta maitasunaren alde borroka egiten duen bitartean. Hany Abu-Assad zinemagile palestinarren berri filma da; aurretik, Paradise Now (2005) film arrakastatsua zuzendu zuen.

PALESTINA 2012 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ARABIERA & HEBREERA - IRAUPENA: 98'
PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUETAN BIZIRIK IRAUTEAZ DIHARDUEN FILMA.
16 urtetik gorakoentzat

IMMIGRAZIOA FILM LABURREAN BILDUMA

- *AÏSSA. Clément Trehin-Lalanne
- *BAHAR IM WUNDERLAND. Behrooz Karamizade
- *EINSPRUCH VI. Rolando Colla
- *RÉTENTION. Thomas Kruithof
- *SE TAIRE. Tancredi Dovolvi

ALEMANIA / FRANTZIA / SUITZA 2012-2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: FRANTSESA, ALEMANA, INGELESA, PERSIERA - IRAUPENA: 62' (guztira)
OINARRIZKO GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA DUTE GAI FILM LABUR HAUEK.



GABRIELLE. Louise Archambault

Gabrielle gazteak bizitzaren aurrean alaitasun kutsakorra du, bai eta musikarako dohain bikaina ere, Williamsen sindromea izan arren. Zentro batera joaten da eta bertako abesbatzan parte hartzen du; Martinekin batera kantatzen du eta harekin maiteminduta dago. Baina ingurukoek ez diete haien arteko harremana nahi duten moduan bizitzen uzten. Taldea Robert Charlebois bertako kantari ospetsuarekin musika jaialdi entzutetsu batean parte hartzeko prestatzen ari dela, Gabrielle bere autonomia erakusten eta independentzia apur bat eskuratzen saiatuko da. Martinekin maitasunezko ezohiko istorio bat bizi nahi badu aurreiritziei eta bere mugei aurre egin beharko die.

KANADA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: FRANTSESA & INGELESA - IRAUPENA: 109'
AUTONOMIA, ZAINZA ETA DIBERTSITATE FUNTZIONALA LANTZEN DITU. 7 urtetik gorakoentzat



SHORT TERM 12. Destin Daniel Cretton

Gracek ikuskatzaile gisa lan egiten du egoera ahulean dauden nerabeentzako harrera-zentro batean. Izugarri atsegin du bere lana eta gazteen zainketan murgiltzen da erabat batzuetan bere iragan ilunaren aurka borroka egin behar badu ere. Jayden nerabea zentrorra iristean, haurtzarotik herrestan daramatzen arazoei bizkar ematen jarraitzea ezinezkoa dela ohartuko da Grace. Bere bizitza pribatuaren eta lan-bizitzaren arteko oreka hauskorra arriskuan egongo da eta Gracek muturreraino eramaten duen krisia – baina, aldi berean, ustekabeko umore eta itxaropen izpiak ekartzen dizkionagainditzeko modua aurkitu beharko du.

AEB 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 96'
HARRERA-ZENTRO BATEN INGURUKO FIKZIOZKO FILMA. 16 urtetik gorakoentzat



KOADERNO HANDIA. János Szász

Bigarren Mundu Gerrako azken urtean, gatazkaren izugarrikeriengatik etsita ama batek bere seme bikiak landara eramango ditu, amonaren etxera. Bi anaiak, ordura arte eroso bizi zirenak, segituan ohartuko dira helduen munduan bizirauteko modu bakarra sentimendurik ez izaten ikastea dela. Ikusten duten guztia libreta batean apuntatuko dute, "koaderno handia" izenarekin bataiatuko dutena. Idazteko garaian kode zorrotz bati eutsiko diote: prosa zehatza izango da eta emoziorik gabekoa.

HUNGARIA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: HUNGARIERA & ALEMANA - IRAUPENA: 107'
GERRAREN ONDORIOEN INGURUKO FILMA. 16 urtetik gorakoentzat

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXV. ASTEKO FILM LABURREN BILDUMA (2014)



- *KITCHEN SINK. Alison Maclean
- *SURPRISE! Veit Helmer
- *GEORGE LUCAS IN LOVE. Joe Nussbaum
- *STAPLERFAHRER KLAUS. Jörg Wagner, Stefan Prehn
- *RARE EXPORTS INC. Jalmari Helander
- *OH MY GOD. John E. Bryant
- *NEXT FLOOR. Denis Villeneuve
- *THE CENTRIFUGE BRAIN PROJECT. Till Nowak

AEB / ALEMANIA / FINLANDIA / KANADA / ZEELANDA BERRIA 1989-2011 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA, FINLANDIERA, ALEMANA - IRAUPENA: 74' (guztira)

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO FILM LABUR BILDUMA. 16 urtetik gorakoentzat



DENOK AKURIAK? (Tous cobayes?). Jean-Paul Jaud

2009 eta 2011 urte bitartean, Gilles-Eric Séralini irakasleak GEOei (genetikoki eraldatutako organismoak) eta laborategiko arratoiei emandako pestizidei buruzko azterketa osatua egin zuen sekretuan, CRIIGEN batzordearen baitan. Bestetik, Fukushima istripuaz geroztik, munduak energia nuklearraren gaineko kezka handia adierazi du. GEOak eta energia nuklearra: gizakiak osasun zein ingurumeneko azterketa sakonik egin gabe erabiltzen ditu teknologia horiek. Ondorioak atzeraezinak gerta daitezke. Akuriak al gara guztiok?

FRANTZIA 2012 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: FRANTSESA & INGELESA - IRAUPENA: 118'
ENERGIA NUKLEARRA ETA TRANSGENIKOEN ARRISKUEZ DIHARDUEN FILM DOKUMENTALA. 16 urtetik gorakoentzat



GAZAKO ZERRIA (Le cochon de Gaza). Sylvain Estibal

Ekaitzaren ostean, Jafarrek, Gazako arrantzale palestinarrek, zeri bat topatuko du bere sarean, itsasontziren batetik erorita segur aski. Animalia ezpurua berehala gainetik kentzea erabakiko du eta saltzen saiatuko da bere egoera ekonomiko kaskarra hobetu asmoz. Horretarako, Jafar gaixoa abentura harrigarri eta ez oso gomendagarrian murgilduko da. Tragikomedia honetan, Gazako herri txikia eguneroko miseriaren, soldadu israeldarren indarkeriaren eta yihadisten aginduen artean harrapatuta dago; egunez egun bizirauten saiatzen den eta (ia) edozer egiteko prest dagoen arrantzale pobreak irudikatzen du egoera hori.

FRANTZIA / ALEMANIA / BELGIKA 2011 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ARABIERA & HEBREERA - IRAUPENA: 98'

PALESTINAR ETA ISRAELDARREN ARTEKO GATAZKAREN INGURUKO KOMEDIA. 16 urtetik gorakoentzat



KAPITALA (Le capital). Costa-Gavras

Marc Tournel anbizio handiko bankaria da gailurrera iristea helburu duena kosta ahala kosta. Hutsetik igoera geldiezin bat abiaraziko du herrialdeko botere eta eragin handienetako pertsona bilakatu arte. Le capital filmaren bitartez Costa-Gavras zinegileak egungo krisi-testuinguruan botere ekonomikoaren indarrak politika eta gizarteari ezarri dion mendekotasunaren inguruko hausnarketa egitea du asmo.

FRANTZIA 2012 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA & FRANTSESA - IRAUPENA: 114'
KRISI EKONOMIKOA ETA MERKATUEN INDARRAREN INGURUKO FILMA. 16 urtetik gorakoentzat



HANNAH ARENDT. Margarethe von Trotta

Hannah Arendt, emakume filosofo, pentsalari, kazetari, judu eta Estatu Batuetara erbesteratua Adolf Eichmannen epaiketaren berri emateko Jerusalemara bidaltzen du The New Yorker egunkariak non epaileek herio-zigorra ezarriko dioten gerra kriminal nazinari. Lau urtetan zehar, eztabaida sutsuen artean, Eichmann in Jerusalem: A Report on the Banality of Evil izeneko liburua idatzi zuen. Nazioartean zalaparta handia sortu zuen publikazioak berehala.

ALEMANIA 2012 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ALEMANA, INGELESA, FRANTSESA, HEBREERA - IRAUPENA: 113' FILM BIOGRAFIKOA. 16 urtetik gorakoentzat



COCKNEYS VS ZOMBIES. Matthias Hoene

Andy eta Terry bi anaia cockney dira (Londreseko East End langile-klaseko auzokoak, oso ingeles berezia hitz egiten dutenak). Ez dute zorte handiegirik bizitzan. Beraien aitona zahar-etxe bateko arduraduna da. Eta eraikina bota ez dezaten, banku bat lapurtzea erabakiko dute. Hori gertatzen ari den ordu berean, birus arraro bat auzotarrak zombi bihurtzen ari da. Komedia dibertigarria, tradizioz onenean, egungo generoko zinema britainiarraren barruan.

ERRESUMA BATUA 2012 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 88' BELDURREZKO KOMEDIA. 13 urtetik gorakoentzat.



NO MORE TOUR. Daniel Gómez, Fermin Muguruza

Fermin Muguruzaren 2013 No More Tourrek munduan barrena topatutako erresistentzia eta konplizitatez osatutako mapa bat marrazten du. Bost hilabeteko biran emandako berrogeita hamabost kontzertu guztira, hogeita hamar urtez taula gainean izan ondoren. Akaso behin betikoa izan daitekeen bira.

EUSKAL HERRIA 2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ALEMANA, ARABIERA, EUSKARA, FRANTSESA, GALIZIERA, ITALIERA, JAPONIERA, KATALANA, KURDUERA, POLONIERA ETA TXINERA - IRAUPENA: 105' DOKUMENTAL MUSIKALA. 13 urtetik gorakoentzat

EMAKUMEA FILM LABURREAN BILDUMA (2013)

- *THE CURSE. Fyzal Boulifa
- *IRENE. Patricia Galucci / Victor Nascimento
- *MOBILE HOMES. Vladimir de Fotenay
- *RAE. Emmanuelle Vicot
- *WHAT TO BRING TO AMERICA. Christophe Nassif

ERRESUMA BATUA / BRASIL / AEB / BELGIKA / FRANTZIA 2010-2013 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ARABIERA, PORTUGALERA, INGELESA, FRANTSESA - IRAUPENA: 76' (guztira)
EMAKUMEARI ERAGITEN DIOTEN ARAZOEZ DIHARDUEN FILM LABUR BILDUMA. 16 urtetik gorakoentzat





FÈNIX 11*23. Joel Joan, Sergi Lara

2004 urteko udazkenean Éric Bertranek, hamalau urteko gazte batek, “Harry Potter eta Fenixaren ordena” liburuan oinarritutako webgune bat sortu zuen katalana babesteko asmoz. Gau batean, Madrileko terrorismoaren aurkako brigadako hogeita hamar guardia zibil bere etxean indarka sartu eta terrorista informatikoa izatea leporatu zioten. Hark egindako krimena: supermerkatu-kate bati mail bat bidali katalanez etiketatzeko eskatuz.


ESPAINIA 2012 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: KATALANA - IRAUPENA: 96'
SALAKETA-FILMA. 13 urtetik gorakoentzat



DANTZA (La danse). Frederick Wiseman

Parisko Operako Balleta munduko ballet konpainiarik inportantenetakoa da. Frederick Wisemanek (Crazy Horse, Public Housing) instituzio honen eguneroko bizitza eta lanaren alderdi guztiak arreta handiz filmatu ditu:saio, ikastaro, errepikapen, entsegu... La Dansen Wisemanek ballet eskola frantses entzutetsu honek irmo bilatzen duen teknikaren zorrotasun eta mugimenduen zehaztasuna azpimarratu nahi ditu baita mundu eder baina gogor honen zoko guztiak agerian utzi.

FRANTZIA, AEB 2009 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 159'
DANTZA ARTISTIKOAREN INGURUKO DOKUMENTALA. 13 urtetik gorakoentzat



THE SHOCK DOCTRINE. Michael Winterbotton, Mat Whitecross

Filmak Milton Friedmanen teoriaren jatorria aztertzen du Chicagoko Unibertsitatean, baita teoria horiek azken berrogei urteetan praktikan izan duten aplikazioa ere, egoera oso ezberdinak zituzten herrialdeetan; esaterako Pinocheten garaiko Txilen, Yeltsinen Errusian, Thatcherren Britainia Handian eta duela gutxiago, Afganistango eta Irakeko inbasioetan. The Shock Doctrine lanak agerian uzten du Friedmanen ideologiaren alderik ilunena, hain onarpen txikia izanik, torturaren eta errepresioaren bitartez baino ezarri ahal izan ez zena. Naomi Kleinek idatzitako izenburu bereko liburuan oinarrituta dago dokumental hau, eta idazleak hondamendiaren kapitalismoa izendatukoaren gorakada azaltzen digu.

AEB 2009 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: INGELESA - IRAUPENA: 79'
HISTORIA GARAIKIDEAREN INGURUKO DOKUMENTALA. 16 urtetik gorakoentzat



NEXT MUSIC STATION (6 atalez osatua). Fermin Muguruza

Al Jazeera Documentary Channel telebista katearen babesarekin musikari eta dokumentalgile irundarrak mundu arabiarreko 9 herrialdetan egindako bidaiaren testigantza da dokumental bilduma hau. Egipto, Maroko, Libano, Tunisia, Siria, Kuwait, Bahrein, Yemen eta Sudan herrialdeetan barrena, bertako musika-errealitatearen soinu-mapa egiten du Fermin Muguruzak historia garaikidearen iraultza garrantzitsu baten atarian, “Udaberri Arabiarra” izenarekin bataiatutako herri matxinaden loraldian hain zuzen.

QATAR / EUSKAL HERRIA 2011 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: ARABIERA - IRAUPENA: LEBANON / MOROCCO / EGIPTO / TUNISIA / SYRIA / KUWAIT / YEMEN / BAHRAIN: 100'. SUDAN 50'
ARABIA KULTURAREN INGURUKO DOKUMENTAL SAILA. 13 urtetik gorakoentzat

PINK SARIS. Kim Longinotto



“Neskatilen bizitza latza da... Emakumeen bizitza oso latza”, dio Sampat Palek, Kim Longinotto dokumentalista britainiar gailenak aurkezten digun lan berri honen protagonistak. Sampat, beste asko bezala, ezkontzera behartu zuten oso gazte zela, eta tratatu txarrak eta esplotazioa bizi izan zituen senarraren familiarengandik. Haiengandik ihes egin zuen eta orain urteak daramatza emakumeen eskubideen aldeko borrokan, Uttar Pradesh eskualdean, Indiako iparraldean. Kasu bera da Rekharena: hamalau urteko neskatila, “ukiezina”, kasta baxuenekoa izateagatik ezkontzen utzi ez dien familia bateko gizon batek haurdun utzitakoa. Baita Renurena ere: hamabost urteko neskatila, senarrak ezkonsenideen etxean abandonatutakoa, haiengandik tratatu txarrak eta erasoak jasotakoa.

ERRESUMA BATUA / INDIA 2010 - JATORRIZKO HIZKUNTZA: HINDI - IRAUPENA: 96'
EMAKUMEEN ESKUBIDEEN INGURUKO DOKUMENTALA. *16 urtetik gorakoentzat*

ZER DA FILMAZPIT

Zineuskadi elkarteak finantzaturako euskarazko azpitituludun zinema zabaltzeko programa da. Donostiako Zinemaldia, Euskadiko Filmategia eta Tabakaleraren laguntzarekin, Donostia Kulturak kudeatzen du.

NORK PROGRAMATU DEZAKE

Edozein instituzio, udaletxe, kultur eragile, irakaskuntza zentru, euskaltegi...

ZEIN DA KOSTUA

Filmazpit programa, proiektzioen egile eskubideez eta, adostutako formatuan, filmaren kopia helarazteaz arduratzen da. Antolatzailearen ardura eta koste bakarra kopia itzultzearena da.

PROIEKTATZEKO FORMATUAK

Betacam Digitala, Blu-ray edo DVDa.

BALDINTZAK

Filmen banatzaileekin hitzartutako akordioaren arabera, **filmazpit** programako katalogo barruan dauden filmen emanaldi eta proiektzioak irabazi-asmorik gabekoak izango dira.

**Dohainik eskaintzeko eskubideak agorturik dituzten filmen kasuan, banatzailearekin zuzenean egin behar da kontaktua emanaldiaren eskubideak ordaintzeko.*

KONTAKTUA

www.filmazpit.eu / filmazpit@gmail.com / +34 610 72 41 62



Difret



Falta den irudia (L'Image manquante)



Papusza



Neska banda (Girlhood)

KUDEAKETA: Donostia Kultura. Victoria Eugenia Antzokia, Reina Regente, 8, Donostia/San Sebastián 20003. t. 943 481 153/157

Kudeatzaileak:

donostiakultura.com



Laguntzaileak:

